

ERASMUS+ PLAZA EMAN ETA ONARTU ONDOREN EGIN BEHARREKOAK


Edukiak:

1. ERASMUS PROGRAMAKO IKASLEEN ESKAEREN JARRAIPENA	2
2. PLAZA ONARTU ONDORENGO PROZESU-DIAGRAMA.....	6
3. PROZESUAREN DESKRIBAPEN ZEHATZA, MUGIKORTASUN-PLAZA BAT ONARTU ONDOREN	6
3.1. Bidaia hasi AURRETIK.....	7
3.1.1.Konpromiso akademikoa eta matrikula	7
3.1.2.Istripu eta aberriratze-aseguru bat sinatzea.....	8
3.1.3.Hizkuntza-proba OLS plataforman	8
3.1.4.Erasmus+diru-laguntzen kontratua (Sepie beka).....	9
3.2. Harrerako unibertsitatean egonaldia HASI ETA BEREHALA	10
3.2.1.Certificate of arrival / Hasierako ziurtagiria.....	10
3.3. Egonaldia AMAITU ONDOREN.....	10
3.3.1.Certificate of attendance/ Egonaldi amaierako ziurtagiria	10
3.3.2.Erasmus + ikaslearen azken txostena	11
4. MAECeko "BIDAIARIEN ERREGISTROA"	11
5. BEKAK	11

1. ERASMUS PROGRAMAKO IKASLEEN ESKAEREN JARRAIPENA

Maiz begiratu zure mugikortasun-eskaeraren egoera zure gaur profilaren bitartez (unibertsitateko elkartrukea) eta kontsultatu errektoreordetzaren web-orrian argitaratzen den informazioa.

GAUR- UNIBERTSITATE-TRUKEA – KONTSULTAK – EGINDAKO ESKAERAK pantailaren bitartez:



Egindako eskaerak mugikortasun-urte honetarako: 2016/17							
Eskaera-zk.		15305		Inprimakia			
Lehetasun-zk.	Programa	Helmugako unibertsitatea	Iraupena	Lauhileko-zk.	Egoera	Eskaera-data	
1	Erasmus +	Politechnika Gdanska (Polonia)	5 Hilab	1	Plazarik gabe	2015/12/10	
2		VSB -Technical University of Ostrava/VSB-Technická Univerzita Ostrava (Txekiar Errepublika)	6 Hilab	1	Plazarik gabe	2015/12/10	
3		VSB -Technical University of Ostrava/VSB-Technická Univerzita Ostrava (Txekiar Errepublika)	6 Hilab	1	Baldintzak onartuta	2015/12/10	
4		POLITECHNIKA SLASKA-SILESIAN UNIVERSITY OF TECHNOLOGY (Polonia)	10 Hilab		Aukera lehenetsiagatik baztertua	2015/12/10	
5		POLITECHNIKA SLASKA-SILESIAN UNIVERSITY OF TECHNOLOGY (Polonia)	10 Hilab		Aukera lehenetsiagatik baztertua	2015/12/10	
6		POLITECHNIKA BIALOSTOCKA (Polonia)	10 Hilab		Aukera lehenetsiagatik baztertua	2015/12/10	
7		HOCHSCHULE DEGGENDORF-DEGGENDORF UNIVERSITY OF APPLIED SCIENCES (Alemania)	5 Hilab	1	Aukera lehenetsiagatik baztertua	2015/12/10	
8		Technologiko Ekpedeftiko Idrima (TEI) of Larissa (Grezia)	5 Hilab	1	Aukera lehenetsiagatik baztertua	2015/12/10	
Xehetasunak							

Eskaera **ONARTUA** markatu, eta pantaila hau ageri da:

Egindako eskaerak mugikortasun-urte honetarako: 2016/17

Eskaera-zk.	15305	Inprimakia				
Lehentasun-zk.	Programa	Helmugako unibertsitatea	Iraupena	Lauhileko-zk.	Egoera	Eskaera-data
1	Erasmus +	Politechnika Gdanska (Polonia)	5 Hilab	1	Plazarik gabe	2015/12/10
2		VSŠ - Technical University of Ostrava/VSŠ - Technická Univerzita Ostrava (Txekiar Errepublikak)	6 Hilab	1	Plazarik gabe	2015/12/10
3		VSŠ - Technical University of Ostrava/VSŠ - Technická Univerzita Ostrava (Txekiar Errepublikak)	6 Hilab	1	Baldintzak onartuta	2015/12/10
4		POLITECHNIKA ŚLĄSKA-SILESIA UNIVERSITY OF TECHNOLOGY (Polonia)	10 Hilab		Aukera lehenetsiagatik baztertuta	2015/12/10
5		POLITECHNIKA ŚLĄSKA-SILESIA UNIVERSITY OF TECHNOLOGY (Polonia)	10 Hilab		Aukera lehenetsiagatik baztertuta	2015/12/10
6		POLITECHNIKA BIAŁOSTOCKA (Polonia)	10 Hilab		Aukera lehenetsiagatik baztertuta	2015/12/10
7		HOCHSCHULE DEGGENDORF-DEGGENDORF UNIVERSITY OF APPLIED SCIENCES (Alemania)	5 Hilab	1	Aukera lehenetsiagatik baztertuta	2015/12/10
8		Technologiko Ekpedefitiko Idriima (TEI) of Larissa (Grezia)	5 Hilab	1	Aukera lehenetsiagatik baztertuta	2015/12/10

Dokumentazioa

JARRAIBIDEAK	Deskargatu
IKASLEEN BETEBEHARRAK	Deskargatu
HELBURUKO IKASTEGIARI BIDALTZEKO INSKRIPZIOA	Deskargatu
ISTRIPU ETA ABERRIRATZE-ASEGURU BAT SINATZEA	Deskargatu
NOLA EGIN HITZARMEN AKADEMIKOA	Deskargatu
ERASMUS IKASLEAREN GUTUNA	Deskargatu
DIRULAGUNTZAREN HITZARMENA. SEPIE BEKA	Deskargatu
IKASLEAREN AZKEN TXOSTENA	Deskargatu
OSO GARRANTZITSUA: OHARRA: MECD BEKARIK EZ DAGO	Deskargatu
OSO GARRANTZITSUA: KUTXABANK BEKAREN OHARRA	Deskargatu
ERASMUS GOMENDIOAK	Deskargatu
OLS HIZKUNTZAREN PLATAFORMAREN ERABILERA	Deskargatu
16-17 CUM LAUDE ASEGURUAREN ARGIBIDEA	Deskargatu
16-17 CUM LAUDE ASEGURUAREN PROTOKOLOA	Deskargatu
16-17 CUM LAUDE INPRIMAKIA (90 EGUN BAINO GUTXIAGO)	Deskargatu
16-17 CUM LAUDE INPRIMAKIA (90 EGUN BAINO GEHIAGO)	Deskargatu
15-16 CUM LAUDE ASEGURUAREN ARGIBIDEA	Deskargatu
15-16 CUM LAUDE ASEGURUAREN INPRIMAKIA	Deskargatu
ERASMUS IKASLEEN JARRAIPENA KONTSULTA	Deskargatu

Xehetasunak

Ziurtagiriak

Uko egitea

Baliteke **inprimakiren** batzuk egonaldian zehar gaitzea eta beste batzuk gehitzea:

- **JARRAIBIDEAK**
 - Arretaz irakurri.
- **IKASLEAREN BETEBEHARRAK**
 - Garrantzitsua: Arretaz irakurri
- **ERASMUS+ IKASLEENTZAKO GUTUNA**
 - Arretaz irakurri zure eskubideak eta betebeharra
- **HEMUGARAKO INSKRIPZIO-ORRIA**
 - Ez da beharrezkoa kasu guztietan. Kontsultatu zure ikastegiko koordinatzailearekin eta, **BEHARREZKO BADA**, inprimatu, bete eta eman koordinatzaileari helmugako unibertsitatera bidal dezan, berak eska diezazukeen dokumentazio gehigarriarekin batera.
- **ETA BESTE DOKUMENTU BATZUK. DOKUMENTUEN ZERRENDA URTE AKADEMIKO BATETIK BESTERA ALDA DAITEKE (gero, baliteke aurreko irudiaren zerrendarekin bat ez etortzea).**

Jarraian, **pantailako botoi orokorrak** deskribatzen dira.

- **INPRIMAKIA** botoia: ikaslearen eskaera inprima daiteke.
- **ZIURTAGIRIAK** botoia: programako Ikasle Ziurtagiria gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez inprima daiteke.
- **UKO EGITEA** botoia: ikasleak edonoiz uko egin diezaioke mugikortasunari. ([Jarraibideak: 7.- PLAZA ONARTZEKO EDO UKO EGITEKO EGIN BEHARREKOAK. URRATSEZ URRATS](#) web orrian)
- **XEHETASUNAK** botoia: ikasleak Nazioarteko Harremanen Bulegora igorri dituen inprimakiak jaso dituzten kontsulta dezake. 1. Blokea, egonaldiaren jarraipenaren dokumentuak, eta 2. Blokea, eskaera egin zuenean balioetsi beharreko dokumentazioa.

Datu akademikoak

Programak Beste eskaerak Diru-laguntzak

Eskaera

Eskaera-urtea 2012/13

Eskaera-zk.	6982	Lehentasun-zk.	1	Programa	Erasmus / LLP
Helmugako unibertsitatea	Politecnico di Milano (campus Leonardo)			Herrialdea	Italia
Hilabete	10	Lauhileko-zk.			

Egoera Baldintzak onartuta Eskaera-data 2012/01/19

Jasotako dokumentazioa

Dokumentazioa	Entregatua	Harrera-data
Helduera-ziurtagiria	☐	
Egonaldi-amaieraren ziurtagiria	☐	
Konpromiso Akademikoa/Learning Agreement	☒	2014/06/16
(OAPPE) Erasmus diru-laguntzen hitzarmena	☐	
Erasmus azken txostena	☐	
Aseguru medikoa	☒	2014/05/20

Baloratu beharreko dokumentazioa

Dokumentazioa	Entregatua
ESKAERA	
AUKERA LIBREKO KREDITUEN AMORTIZAZIOA	
INGELES ZIURTAGIRIA	
FRANTSESA ZIURTAGIRIA	
ALEMANIERA ZIURTAGIRIA	
ITALIERA ZIURTAGIRIA	
BESTE HIZKUNTZAK	
BESTE IKASKEETAKO ESPEDIENTEAK	
HELBURUKO UNIBERTSITATERA BIDALITAKO IKASLEEN ZERRENDA	
HELBURUKO UNIBERTSITATEKO ERANTZUNA	
HELBURUKO UNIBERTSITATERA BIDALITAKO DOKUMENTAZIOA	
HELBURUKO UNIBERTSITATERA BIDALITAKO HITZARMEN AKADEMIKOA	
JASOTA SIÑATUTAKO HITZARMEN AKADEMIKOA	
TRANSCRIPT OF RECORDS (JASOTAKO KALIFIKAZIOAK)	
IKASGAIEEN KONBALIDAZIOA	
PROIEKTUAREN KONBALIDAZIOA	
MEMORIA	

Atzera

2. PLAZA ONARTU ONDORENGO PROZESU-DIAGRAMA

Bidaia HASI AURRETIK	Konpromiso akademikoa eta matrikula	---
	Asegurua eta Europako Osasun Txartela	Bidali Ikastetxeko/Fakultateko Nazioarteko Harremanen koordinatzaileari
	OLS proba (Erasmus bakarrik)	ols.internacional@ehu.eus
	Erasmus+ diru-laguntza hitzarmena (Sepie beka)	Bidali nazioarteko harremanetarako bulegoari movilidad.internacional@ehu.eus
Helmugako UNIBERTSITATERA IRISTEAN	Certificate of arrival / Hasierako ziurtagiria	Bidali nazioarteko harremanetarako bulegoari movilidad.internacional@ehu.eus
Atzerriko EGONALDIA AMAITUTA	Certificate of attendance/ Amaierako ziurtagiria	Bidali nazioarteko harremanetarako bulegoari movilidad.internacional@ehu.eus
	Erasmus ikaslearen azken txostena	Eu-corporate-notification-system@ec.europa.eu helbideko mezu elektroniko bat jasoko duzue, inkesta egiteko estekarekin

3. PROZESUAREN DESKRIBAPEN ZEHATZA, MUGIKORTASUN-PLAZA BAT ONARTU ONDOREN

Behin eman zaizun mugikortasuna onartu eta gero, uneoro inprima dekezu mugikortasuneko ikaslearen kredentziala GAUR (UNIBERTSITATE TRUKEA) profileko **ZIURTAGIRIAK** botoia erabilita. **XEHETASUNA** botoiaren bitartez, aipaturiko mugikortasunaren jarraipena egin dezakezu. Horretarako, onartutako mugikortasuna hautatu behar duzu. Egonaldirako behar dituzun **dokumentuak** ere deskargatu ahal izango dituzu (baliteke horietakoren bat egonaldian zehar gaitzea).

Mugikortasun-programako zure parte-hartzea behar bezala izapidetzea ondoren aipatuko dizkizugun dokumentuak adierazitako epeetan bidaltzearen baitan egongo da (movilidad.internacional@ehu.eus). Dokumentu horietakoren bat ez aurkezteak programan parte hartzeko eskubideak galtzea eta ikasketa- kontratua eta diru-laguntzaren kontratua ezeztatzea eragin dezake:

3.1. Bidaia hasi AURRETIK

3.1.1. Konpromiso akademikoa eta matrikula

Garrantzitsua. Irakurri arretaz.

Behin zure helmuga jakiten duzunean, zure ikastegiko koordinatzailearekin harremanetan jarriko zara ikasketa-gaiekin zerikusia duten xehetasunak eztabaidatzeko eta **GAUR aplikazioaren nahiz EWP aplikazioaren bitartez**, LEARNING AGREEMENT-KONPROMISO AKADEMIKOA betetzeko (prozesua epeka bizkortzea behar bada, konpromiso akademikoa egin daiteke paper formatuan).

Horretarako, kontuan hartuko dira ikaslearen betebeharretan adierazitako jarraibideak, elkartruke-programetan parte hartzeko arauak eta mugikortasun-programaren deialdiko oinarriak.

Trukeko ikaslea izanez gero, **lehenik konpromiso akademikoa zure GAUR profilaren bidez egin behar duzu nahitaez**, aurretik paperean egina izan arren; izan ere, konpromiso hori zure matrikulari eta ondorengo noten espedienteari lotuta dago.

Konpromiso akademikoa zure GAUR profilaren bidez egin ezean, UPV/EHUko ikasle gisa matrikulatuta agertuko zara, baina EZ trukeko ikasle gisa. Hartara, ezin izango dituzu baliozkotzeak egin, eta ez da inon agertuko mugikortasun-programa batean parte hartu duzula.

Matrikula UPV/EHUn egingo duzu automatrikulako sistemaren bidez, argitaratzen diren datetan.

Auto-matrikula egin ondoren, konpromiso akademikoaren bertsio digitala (OLA – Online Learning Agreement) formalizatu beharko duzu zure koordinatzailearekin eta helmugako unibertsitatearekin, UPV/EHUko EWP aplikazioan (Erasmus Without Paper). Aurrerago nola egin jakiteko argibideak emango dizkizute. Izan ere, konpromisoaren bertsio digitala baliozko bertsioa da eta derrigorrezkoa da Erasmus+ programan.

Garrantzitsua da konpromiso akademikoaren edozein aldaketa zure koordinatzaileari jakinaraztea; baita aldatzeko asmoa ere.

3.1.2. Istripu eta aberriratze-aseguru bat sinatzea

Atzerrira joan **BAINO LEHEN**:

1. **Gizarte Segurantzaren Europako Osasun Txartela eskuratu** beharko da
2. Bidaiarako aseguru bat egin beharko da, aurreikusitako egonaldi OSOAN gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko, aberriratzeko, heriotzarik egotekotan, eta osasun garraiorako estaldura mugagabea izango duena. **Aseguru horren kopia bat aurkeztu beharko da zure fakultatean** koordinatzaileak Learning Agreement / Konpromiso Akademikoa sinatu ahal izateko. Aseguruaren **kopia hori aurkezten EZ bada, ez da Learning Agreement / Konpromiso Akademikoa sinatuko** eta ikaslea programatik at geratuko da eta salbuetsita geratuko da Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun-programetarako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik eta UPV/EHUren Errektoreordetzak gestionatutako mugikortasun-programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik at geratuko zara.

Aseguruaren eskakizunei buruzko informazio gehiago mugikortasun programaren webgunean aurkituko duzu (10. atalean): <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/erasmus-programa-2020-2021>

3.1.3. Hizkuntza-proba OLS plataforman

Oharra: *OLSeko hizkuntza-ebaluazioaren prozedurak aldaketak izan ditzake 2022-23 deialdian. Unean-unean jakinaraziko da aldaketa horiek gertatzen badira.*

Erasmus+ mugikortasun bateko onuradunek **hizkuntza testa egin beharko dute OLS plataforman**, nazioarteko harremanen bulegoak emandako jarraibideak aintzat hartuta.

Emailaz jasoko dituzun argibideak jarraituz (@ikasle emailean) zure gaitasun linguistikoaren **online azterketa egin** behar izango duzu mugikortasuna egin baino lehenago, irakaskuntzako hizkuntza nagusia alemaniera, bulgariera, kroaziera, txekiera, daniera, eslovakiera, finlandiera, frantsesa, greziera, nederlandera, hungariera, ingelesa, italiara, poloniera, portugesa, errumaniera eta suediera denetan, edo helburuko unibertsitatearekin horrela adosten denetan, hizkuntza horren jatorrizko hiztuna denean izan ezik. Proba egin ezin ezkerro unibertsitatea ahalik eta lasterren informatu behar izango duzu.

Mugikortasuna egin baino lehen, online derrigorrezko etsamina linguistikoaren egiten ez bada, ezin izango da mugikortasuna egin eta Erasmus+ programatik kanpo geratuko da ikaslea. Hizkuntza froga egiten ezean, UPV/EHUK ez du atzerrian egindako ikasketaren onarpen akademikoa emango, eta beka itzuli beharko da.

Behin emaitzak ezagututa **online hizkuntz- ikastaro bat (HAUTAZKOA)** jarraitu ahal izango duzu, atzerrian burutuko duzun mugikortasuna prestatzeko.

3.1.4. Erasmus+diru-laguntzen kontratua (Sepie beka)

Behin Errektoreordetza honi jakinarazten zaionean Hezkuntzako Nazioartekotasunerako Zerbitzu Espaniarra (SEPIE) bitartez izapidetutako diru-laguntzaren zenbatekoa, dokumentu hau aktibatuko da eta irakurri, inprimatu, bete eta sinatu ondoren, Nazioarteko Harremanetako bulegora bidali dezakezu izapidetu ahal izateko. **Dokumentu hau mugikortasunari hasiera eman aurretik aurkeztu beharko da.**

GAURen bitartez eskaera egitean adierazitako kontu-zenbakian sartuko zaio laguntza onuradunari. **Lehenengo ordainketan**, EBren Erasmus+ funtsetatik eskuratutako zenbatekoaren **%70ren** kopuru baliokidea ordainduko dizugu: kobratu ahal izateko ikasleak honako agiriak behar bezala beteta eta sinatuta bidali beharko ditu UPV/EHUKo Leioako Nazioarteko Harremanetarako bulegora: Erasmus diru-laguntzen kontratua, harrera-unibertsitatean hasi dela egiaztatzen duen egiaztagiria eta egonaldiko denboraldi OSOA estaltzen duen istripu eta aberriratzeko mediku-aseguru gehigarriaren frogagiriaren kopia. Halaber, ordainketa egiteko, ikasleak GAUR bidez eginda izan beharko du behin behineko edo **behin betiko konpromiso akademikoa, eta OLSen azterketa egin izana.**

Gainerako %30 jasotzeko, berriz, egonaldiaren amaierako ziurtagiria bidali beharko diozu UPV/EHUKo Nazioarteko Harremanetarako Bulegoari eta, **EBren galdetegia beteta eduki beharko duzu.**

Beka kontzeptu gisa sartu beharreko zenbatekoa izango da SEPIEk komunikatutako zenbatekoa eta emandako hilabete kopurua biderkatzetik ateratako emaitza, baina ZAZPI HILABETE BAINO EZ DUTE FINANTZATUKO. CERTIFICATE OF ATTENDANCE delakoaren datak hartuko dira kontuan egonaldian benetan emandako hilabeteak egiaztatzeko eta, kasuan kasu, Nazioarteko Harremanetako bulegotik eska daiteke egiaztatu ez diren hilabeteengatik jaso diren diru laguntzen zenbatekoa itzultzeko.

Webgunean, SEPIEk herrialde talde bakoitzerako **ezarritako zenbateko ekonomikoen taula dago**, bakoitzaren maila ekonomikoaren arabera.

3.2. Harrerako unibertsitatean egonaldia HASI ETA BEREHALA

3.2.1. Certificate of arrival / Hasierako ziurtagiria

"Dokumentazioa" atalean eskura daiteke zure profilean, GAUR aplikatiboan. Helmugako unibertsitatean sartzen zarenetik **hilabete igaro baino lehen**, ahalik eta lasterren igorri behar duzu UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegora (movilidad.internacional@ehu.eus), helmugako ikastegiak emandako ziurtagiria, erakunde horretan sartu zareneko data berresten duena.

Behin entregatzeko epea bukatu eta Nazioarteko Harremanetako bulegoan aipatutako **dokumentua jaso ez bada, programatik ken daiteke aitorpen akademikorik gabe eta diru laguntzarik jaso gabe eta zigortu egingo da**, hau da, salbuetsita geratuko zara Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun-programetarako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik eta UPV/EHUren Errektoreordetzak gestionatutako mugikortasun-programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik at geratuko zara.

[Ziurtagiri honen emate-data ez da inola ere izango ikasleak helburuko unibertsitatean egiten duen egonaldia hasi baino lehenagokoa.](#)

3.3. Egonaldia AMAITU ONDOREN

3.3.1. Certificate of attendance/ Egonaldi amaierako ziurtagiria

"Dokumentazioa" atalean eskura daiteke zure profilean, GAUR aplikatiboan. Helmugako unibertsitatean egindako **egonaldia bukatzen duzunik hilabete igaro baino lehen**, ahalik eta lasterren igorri behar duzu posta UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegora helmugako ikastegiak emandako ziurtagiria, egonaldiaren amaiera eta egonaldiaren hasierako eta bukaerako datak berresten dituen.

Behin entregatzeko epea bukatu eta Nazioarteko Harremanetako bulegoan aipatutako dokumentua jaso ez bada, programatik ken daiteke aitorpen akademikorik gabe eta diru laguntzarik jaso gabe eta zigortu egingo da, hau da, salbuetsita geratuko zara Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun-programetarako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik eta UPV/EHUren Errektoreordetzak gestionatutako mugikortasun-programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik at geratuko zara.

[Ziurtagiri honen emate-data ez da inola ere izango ikasleak helburuko unibertsitatean egiten duen egonaldia amaitu baino lehenagokoa.](#)

3.3.2. Erasmus + ikaslearen azken txostena

Helmugako unibertsitatean egonaldia bukatu eta epean egin behar duzu adierazten zaizun moduan.

Tresna horrek jakinarazpen automatikoak igorriko dizkie onuradunei, mugikortasun aldia amaitu ondoren. Hori egingo da, bulego honek jasotako **Certificate of Attendance** delakoaren datak tresnan sartu ondoren.

Ezinezkoa da mezu horiek zehazki noiz igorriko diren esatea; beraz, "ikasle" posta korporatiboko helbideari adi egoteko eskatzen dizugu, mesedez, ikasturtea amaitu bitartean.

Mezu elektronikoko bat jasoko duzue "IKASLE" helbidean, eu-corporate-notification-system@ec.europa.eu helbidetik (letra xehez), inkesta bete dezazuen. Spam karpeta irits daiteke.

Txostena DERRIGOR bete behar da. Jasotzen duzuen mezuan esteka bat emango zaizue, inkestara sartu eta betetzeko, eta 30 egun naturaleko epean igortzeko, mezua jaso duzuenetik aurrera zenbatzen hasita.

Behin egiteko epea bukatu eta Nazioarteko Harremanetako bulegoan aipatutako txostena jaso ez bada, programatik ken daiteke aitorpen akademikorik gabe eta diru laguntzarik jaso gabe eta zigortu egingo da, hau da, salbuetsita geratuko zara Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun-programetarako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik eta UPV/EHUren Errektoreordetzak gestionatutako mugikortasun-programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik at geratuko zara.

4. MAECeko "BIDAIARIEN ERREGISTROA"

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak MAECeko bidaiarien erregistroan izena emateko gomendatzen du. Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren zerbitzu elektronikoko honetan ikasleak harremanetarako datuak eguneratu ahal izango ditu, premiazko kasuetan haiekin harremanetan jarriahal izateko. <https://www.visatur.maec.es/viajeros/>

5. BEKAK

Zure mugikortasunari dagozkion bekei buruzko informazioa Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetako bulegoaren bidez jasoko duzun diru-laguntza kontsulta dezakezu Diru-laguntzak erlaintzaren bitartez, deialdiak ezagutu eta hura gaitzen denean. Hainbat banketxek (KUTXABANK) ikasleei zuzenean jakinaraziko die dirulaguntzak jasotzeko onartuak izan diren edo ez. Beraz, beka horiei buruzko informazioa **EZ** da GAUREn argitaratuko.

Nazioarteko Harremanetako Bulegoa

Bibliotekako eraikina 2.solairua

48940 Leioa (Bizkaia)

Tfnoa.: 94 601 2000

E-maila: movilidad.internacional@ehu.eus